

131. Alea 2024ko martxoa

AMIANTOA TRG Amurrion



Denok entzun dugu zer bait amiantoari buruz eta ez dira oso gustukoak entzundakoak. Izan ere, duela mende bat baino gehiagotik ezagutzen ziren osasunean zituen ondorio kaltegarriak. Estatu espainolean, ordea, 2002 arte ez zen debekatu.

Bada, TRG Amurrion **BEHIN ETA BERRIZ** agertzen da material hori. Jakinaren gainean behin eta berriz azpimarratzen dugu TRGZk joan den ostegunean, martxoak 7, argitaratu zuen komunikatua erabat gezurtatzen dugula, Batzordeak aho batez hilabete horretako 5ean argitaratu zuenari erantzuten duen komunikatuan, hain zuzen ere.

Hurrengo lerroetan, kronologikoki azalduko ditugu gertaerak, Amurrioko plantako langile guztiek ahalik eta informazio gehien izan dezaten egoera honi buruz, LAB TRG Amurrion hain larritzat hartzen dugun moduan.

Otsailaren 29an, osteguna, TECRESA kontratako langileek, kalibragailuaren labearen lanean ari zirela, material susmagarri bat aurkitu zuten labearen zoruko erregogorraren azpian. Prebentzio Zerbitzuak ingurua zigilatzea eta enpresa espezializatu bati deitzea erabaki zuen, materialaren laginak hartu, aztertu eta nola jokatu aholkatzeko. Esan beharra dago labearen barruan erregogorren geruza altxatuz lan egin zuten lankideek gune itxietan lan egiten dutenean nahitaez erabili beharreko erauzgailuak jartzen dituztela martxan. Eta beharrezkoa iruditzen zaigu hori aipatzea, logikak esaten baitu, lurzorua pikatzen ari ziren bitartean, labearen barruan hain arriskutsua zen material horren partikulak altxatu baziren, erauzgailu horiek kanpoan zabaldu zituztela.

Prebentzio Sailaren arabera, martxoaren 4ra arte (astelehena) ez ziren iritsi material susmagarriaren analisisen emaitzak, eta **AMIANTOA** zen. Gertaera horiek guztiak Prebentzioko ordezkariari deirik egin gabe gertatu ziren. Zurrumurruak eta iruzkinak besterik ez ziren tailerrean, eta inork ez zuen ezer esaten material susmagarria aurkitu eta handik 4 egunetara.

Asteartean, martxoak 5, goizean zehar, LABek, gaiaren larritasuna kontuan hartuta, 2020an egin genuen bezala (garai horretan ere aurkitu zen materiala, aurrerago zehaztuko dugun moduan), Batzordeari agiri bateratu bat egitea proposatzen diogu, plantillari jakinarazteko. Agiriaz gain (gure Telegram-en aurkitu ahal duzue, LABTRI KANALA, denei irekia), egoerari buruzko azalpenak batera eskatzea proposatzen dugu Batzordeari. Batzorde osoa aho batez atxikitu zen gure proposamenari, salbuespenik gabe.

Hori guztia martxoaren 5eko goizean gauzatu zen. Batzordeko idazkariak dena prest zuenean Zuzendaritza Nagusiari emateko,

Prebentzio Sailak mezu elektroniko bat bidali zigun sindikatu atal guztiei, gai horri buruz sindikaturen batek egin zituen galderak aipatuz. Orain arte ezinezkoa izan zitzaien gai honi buruzko informazioa ematea, gertaerak hitz gutxitan azaldu zuten eta hitzeman zuten informazioa ematen jarraituko zutela. 5 egun pasa ondoren eta kasualitatez Batzordeak idatziz azalpenak eskatu baino lehen.

Ostegunean, martxoak 7, presako deialdia egin zuten prebentzioko ordezkariak, eta, alde aurretik, Zuzendaritza Nagusiak agiri bat argitaratu zuen, zeinetan Batzordea gezurretan zebilela irakurtzen genuen. Esan ziguten ezin genuela esan amiantoa BEHIN ETA BERRIRO kentzen zela, alarma sortzen zuelako, ez zela egia enpresak egoera kontrolatua ez zuenik eta labearen inguruan lan egin duten pertsonak ezin ditugula larritu, arduragabekeria bat delako.

Hala bada, atal sindikal honek frogatu dezake amiantoa behin eta berriz erretiratu egin dela. Orain Batzordea gezurretan dabilela dioen pertsona berak, 2020an emaitzez bota zigun, 2020 eta 2019. urteetan hirutan erretiratu zela amiantoa Tubosen. 2019ko maiatzean altzairutegiko teilapean kendu zutela, 2020ko ekainean biltegitik amiantoz egindako junta batzuk eta urrian bertan zapata bat eta balaztatzeko diskoa batzuk ere kendu zutela, hain zuzen ere. Aste honetako egoerarekin, 4 aldiz erretiratu egin da amiantoa instalazioetatik azken 5 urteetan, hori al da egoera kontrolatuta izateko modua? Ez al da arduragabea labearen inguruan lan egin duten langileak alertan jartzea, lehen aipatutako labeko eruzgailuek labearen ingurua kutsatu ahal izan direla ez dakigunean? Zerbaitek ihes egiten digu...

LABek TRGZri exigitu egiten dio bere komunikatua zuzen dezala eta gardentasunez jardun dezala hain egoera larrietan,

beharrezko neurri guztiak har ditzala, eta are gehiago Amurrion lan egiten dugun guztion osasuna bermatu dezan, nahiz eta jakin, iraganean, TRIren Zuzendaritzak borroka egin zuela langileei amiantoaren eraginpean lan egiteagatik sortutako gaixotasun profesionala ez aitortzeagatik. Jarrera aldatu duela TRG izena aldatu duen bezala frogatu behar du, azken urteetan amiantoaren eraginpean egon diren langileen zerrenda zabala eginez, horrelako jarduketetan hain beharrezkoa den aldizkako jarraipena egin dakien, etorkizunean pozoi honek eragiten duen gaixotasuna jasateko zorigaitza badute, eritasun profesionaltzat jo ahal izateko.



«« zubitik kanpo

Zoritxarrez, Ugaoko ENVASES UNIVERSALES enpresako lankideen berri txarrak iristen zaizkigu. Enpresak 50 kaleratze inguru jarri dizkie mahai gainean, langileen erdiak. Eta ez lan faltagatik, bere asmoa lana deslokalizatzea da, Leonera bidalita, diru gehiago lortzeko.

Jendearen bizitzaren gainetik zekenkeria. Batzordeak dei egin du larunbatean, martxoak 16, Ugaon egingo den manifestaziora joateko, une latz hauetan elkartasuna erakusteko. ANIMATU!!!